

Euskal AEn, 2005-2009 urteen bitartean, osasun-gastuaren urteko batez besteko hazkunde tasa % 9,0 izan zen

Biztanleko guztizko osasun-gastua 2.602 eurora iritsi zen 2009an, aurreko urtean baino % 6,9 gehiago.

2009an Euskal AEn osasunean eginiko guztizko gastua 5.636 milioi euro izan zen, 2008an baino % 7,5 gehiago, Eustatek ELGEren Osasun Kontuen Sistemaren printzipio metodologikoei jarraiki (System of Health Accounts-SHA) emandako datuen arabera.

2009ko Barne Produktu Gordinaren % 8,8 hartu zuen osasun-gastuak, 2005ean baino 1,8 ehuneko-puntu gehiago. Gastuaren finantzaketa aztertuta, finantzaketa publikoa guztizkoaren % 75,1 izan zen, 4.231 euro 2009an.

1. taula: Euskal AEko Osasun Kontuaren datu eta adierazle nagusiak. 2005-2009

						Aldakuntza-tasa (%)	
						Urteko batez besteko	
	2005	2006	2007	2008	2009	2009 / 2008	2009 / 2005
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTUA (milaka €)	3.994.669	4.303.344	4.743.779	5.244.239	5.636.111	7,5	9,0
Finantzaketa publikoa	2.889.805	3.115.888	3.475.698	3.900.495	4.230.867	8,5	10,0
Finantzaketa pribatua	1.104.864	1.187.456	1.268.081	1.343.744	1.405.244	4,6	6,2
Biztanleko gastu guztia (eurotan)	1.893	2.027	2.217	2.433	2.602	6,9	8,3
BPGren gaineko gastu guztia	6,97	6,97	7,14	7,72	8,78	1,05 (*)	1,80 (*)
Herri administrazioen gastuen gaineko osasun gastu publikoa %	15,60	15,67	16,01	16,25	16,27	0,02 (*)	0,67 (*)
BPG mp	57.289.143	61.760.620	66.427.468	67.924.490	64.225.605	-5,4	2,9
Biztanleria (uztailak 1)	2.109.890	2.123.184	2.139.370	2.155.349	2.165.991	0,5	0,7

(*) Aldekoa, ehunekotan

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua

Erkatzen baditugu osasun-gastu publikoa eta herri administrazioen gastu guztia, administrazio publikoek osasunean egiten duten esfortzuaren adierazlea lortuko dugu. Adierazleak gorantz egin du aldi osoan zehar, eta % 16,3ra heldu da 2009an.

Nazioarteko erkaketan, ELGEk eskainitako 2.009 urteko azken datuak begiratzuz, Euskal AEko biztanle bakoitzeko osasun-gastua 3.658 EAP (erosteko ahalmenaren parekotasuna dolarretan) da, Erresuma Batukoa (3.487), Finlandiakoa (3.226), eta Espainiakoa (3.067) baino altuagoa, eta Norvegiakoa (5.352) eta Suitzakoa (5.144) baino baxuagoa, besteak beste.

Finantzaketari dagokionez, **Euskal AEn osasun-gastu guztiaren % 75,1 gastu publikoa da, inguruko herrialdeetan bezalatsu.** Euskal AEn osasunaren administrazio publikoek egiten duten esfortzuaren adierazlea 16,3 da, Erresuma Batukoa (16,0) Belgikakoa (15,1), Suediakoa (14,8) eta Espainiakoa (15,2) baino altuagoa.

2.Taula: Gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2009

	Herri administrazioen gastuen gaineko osasun gastu publikoa %	BPGren gaineko gastu publikoa	Gastu guztia gaineko gastu publikoa %	BPGren gaineko gastu guztia	Biztanleko gastu guztia (EAP, US\$)	Biztanleko BPG (EAP,\$)
Alemania	18,7	8,9	76,9	11,6	4.218	36.328
Austria	16,2	8,6	77,7	11,0	4.289	38.823
Belgika (d)	15,1	8,2	75,1	10,9	3.946	36.287
Canada	18,1	8,1	70,6	11,4	4.363	38.230
Danimarka	16,8	9,8	85,0	11,5	4.348	37.706
Espainia	15,2	7,0	73,6	9,5	3.067	32.254
Estatu Batuak	19,7	8,3	47,7	17,4	7.960	45.797
Finlandia	12,1	6,8	74,7	9,2	3.226	35.237
Frantzia	16,3	9,2	77,9	11,8	3.978	33.763
Irlanda	14,6	7,2	75,0	9,5	3.781	39.652
Islandia	15,5	7,9	82,0	9,7	3.538	36.654
Italia	14,2	7,4	77,9	9,5	3.137	33.105
Norvegia (e)	17,4	8,1	84,1	9,6	5.352	55.730
Erresuma Batua	16,0	8,2	84,1	9,8	3.487	35.656
Suedia	14,8	8,2	81,5	10,0	3.722	37.155
Suitza	19,9	6,8	59,7	11,4	5.144	45.150
Euskal AE	16,3	6,6	75,1	8,8	3.658	42.360

d: Metodologia ezberdintasunak

e: zenbatespena

EAP: Eros Ahalmenaren Parekotasuna

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua eta OECD Health Data 2011 (Azaroa 2011)

BPGrekiko ehunekotan, hala ere, gastua % 8,8 da Euskal AEn; beraz, erreferentziako herrialdeen azpitik dago.

Euskal AEKo osasun-gastua ELGEko herrialdeen artean behar bezala kokatzeko, ikuspegia beste **eskaintza-adierazleekin** osatu behar da, hala nola biztanleko mediku- kopurua, batez besteko egonaldia edo mediku-kontsultak, eta baita osasun- adierazleekin ere, esaterako bizi-esperantza. **Adierazle hauek azterturik, Euskal AE ELGEko herrialdeetako batez bestekoaren gainetik dago**

3. taula: Egituraren, osasun jardueraren eta osasunaren adierazleak. 2009

	Medikuak / 1.000 biz.	Ospitaleetako batez besteko egonaldia	Kontsultak / 1.000 biz.	Bizi esperantza
Alemania	3,6	9,7	8,2	80,3
Espainia	3,5	6,9	7,5	81,8
Italia	3,4	6,7	7,0	81,8
Belgica	2,9	7,8	7,6	80,0
Irlanda (1)	3,1	6,1	3,3	80,0
Luxenburgo	2,7	7,3	6,3	80,7
Danimarka	3,4	4,8	4,6	79,0
Erresuma Batua	2,7	7,7	5,0	80,4
ELGE	3,1	7,2	6,5	79,5
Euskal AE	3,9	7,7	7,9	82,2

(1) Medikuek eta beste barne hartuta

Iturria: EUSTAT. Ospitale eta Ospitaleez Kanpoko Estatistika, EUROSTAT y OECD Health Data 2011 (Azaroa 2011)

Euskal AEko Osasun Kontuen azterketa xeheago batek agerian jartzen du gastu arrunta 2009ko guztizko gastuaren % 96,6 izan zela, eta gainerako % 3,4 kapital eraketa gordina (inbertsioa) izan zela.

Gastua funtzioen arabera banatuz gero, % 74,2 banakako osasun- zerbitzuetarako izan zen. Hazkunderik handiena egonaldi ertain eta luzeko osasun-laguntzan gertatu zen, % 13,8ko urteko tasa metatuarekin hazi zena; funtzio honetan mendekotasun egoeren osasun-gastuaren zatirik handiena jasotzen da.


Tabla 4: Osasun gastua funtzioen arabera

FUNTZIOA	milaka eurotan		Osasun gastu guztiaren gaineko %		Aldakuntza-tasa (%)
	2005	2009	2005	2009	Urteko batez besteko metatua 2009/2005
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	2.105.129	2.909.899	52,7	51,6	8,4
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	68.151	96.615	1,7	1,7	9,1
HC.3 Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	496.655	834.029	12,4	14,8	13,8
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	253.046	344.169	6,3	6,1	8,0
HC.1 - HC.4 Banakako osasun zerbitzuak	2.922.981	4.184.712	73,2	74,2	9,4
HC.5 Kanpoko pazienteei emandako osasun-produktuak	781.618	986.777	19,6	17,5	6,0
BANAKAKO OSASUN GASTUA	3.704.599	5.171.489	92,7	91,8	8,7
HC.6 Prebentzio eta osasun publikoko zerbitzuak	79.244	98.877	2,0	1,8	5,7
HC.7 Osasuneko administrazioa eta aseguruak	105.477	176.523	2,6	3,1	13,7
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	3.889.320	5.446.889	97,4	96,6	8,8
HC.R.1 Kapital-eraketa gordina	105.349	189.222	2,6	3,4	15,8
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTUA	3.994.669	5.636.111	100,0	100,0	9,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua

Gastuaren garrantziaren aldetik bigarren funtzioa kanpo pazienteentzako osasun-produktuena izan zen, gastuaren % 17,5. Bi multzo hauek batuz banakako osasun-gastua lortzen da, gastuaren % 91,8.

1. Grafikoa. Osasun gastuaren banaketa hornitzaileen arabera. 2009



Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Osasunaren Kontua

Hornitzaileen araberako gastuaren egitura aztertuz gero, ikusten da gastu zatirik handiena (% 40) ospitaleetan gauzatu zela; ondoren anbulatorioko osasun-laguntzaren hornitzaileak datoz, % 27rekin. Egoitzak eta erizaintzako instalazioak gastu arruntaren % 10 izan ziren; azken lau urteetan gehien hazi den multzoa da hau, % 11,4ko tasa metatuarekin (multzo honetan jaso da mendekotasun egoeren osasun-gastua).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Clara Ramos Hernández

Tlf:+34-945-01 75 97 Faxe:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Osasunaren Kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Osasunaren Kontu. Datu-bankua